

Laudioko Estacionamientos y Servicios enpresako 6 langileak kaleratzeko asmoa plazaratu zuen Udalak

ELAk eskatutako bileran, Udalak jakinarazi du aldatu nahi duela kamioi aparkalekuko zerbitzua eta ez duela asmorik langileak subrogatzeko

Laudioko Estacionamientos y Servicios enpresako langileak mobilizazio betean daude enpresa hitzarmena lortzeko. Udalerriko Arantzarreko kamioien aparkalekuaren sarbideak kontrolatzeko zerbitzua eskaintzen dute sei langilek, eta gutxineko soldata doi-doi jasotzen dute, estatuko hitzarmena aplikatzen baitzaie. Bi hilabetez grebak txandaka egin dituzte euren egoera prekarioa salatzeke, eta datorren astelehenean hasiko dute beste bi asteke greba.

Bada, Laudioko Udalak ELAk eskatutako negoziazio bilera batean honako hau jakinarazi du ezustean: aparkalekuko sarbideak kontrolatzeko zerbitzuari instalazio berri txertatu nahi dio etengabeko zaintza izateko, eta dio ez duela bermatzen 6 langile horien lanpostua.

Iragarpen hori arriduraz hartu dute langileek. ELAk Udalaren jarrera deitoratzen du, erabakia langileen greben ostean datorrelako. Hau da, soldata erabat prekarioak hobetzeko eskaera egin dutenean erabaki du Udalak langile horien lan segurtasuna ezbaian jartzea.

Egoera horren aurrean, langileek mobilizazioekin jarraituko dute, eta datorren asteleheneko greba deialdiari eutsi diote.

El Ayuntamiento de Laudio ha anunciado la posibilidad de despedir a los 6 trabajadores de la empresa Estacionamientos y Servicios del municipio

En la reunión solicitada por ELA, el Ayuntamiento ha comunicado que quiere modificar el servicio del aparcamiento de camiones y que no tiene intención de subrogar al personal

La plantilla de Estacionamientos y Servicios de Laudio está en plena movilización para lograr un convenio de empresa. Seis trabajadores ofrecen un servicio de control de accesos al aparcamiento de camiones de Arantzar, estacionamiento que gestiona el Ayuntamiento, y el salario que perciben supera por poco el salario mínimo interprofesional, ya que se les aplica el convenio estatal. Tras dos meses de huelgas intermitentes para denunciar su precaria situación, el próximo lunes comenzarán una nueva convocatoria de dos semanas de huelga.

Pues bien, el Ayuntamiento de Llodio, en una reunión negociadora solicitada por ELA, ha comunicado por sorpresa su intención de incorporar al servicio de control de accesos del aparcamiento una nueva instalación para mantener una vigilancia permanente, y asegura que no puede garantizar el puesto de trabajo de estas seis personas trabajadoras.

La plantilla se muestra sorprendida ante este anuncio. ELA lamenta la actitud del Ayuntamiento, porque la decisión viene tras las huelgas. Es decir, el Ayuntamiento ha decidido cuestionar la seguridad laboral de la plantilla cuando han solicitado mejoras salariales para mejorar sus condiciones precarias.

Ante esta situación, la plantilla continuará con las movilizaciones, y mantiene la convocatoria de huelga del próximo lunes.